271. zk.
Bigarren aroa
Otsailak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

INAUTERIAK IRUNEN

Elkarrizketa
Jabier Muguruza musikaria
7. orrialdea

Kirolak
Santiagotarrak elkarteak 50 urte bete ditu.
8. orrialdean

3 Erreportajea Sardinaren ehorzketa
4-5 Argazkiak Inauteriak.
6 Elkarrizketa Lerie Lopetegi, Amatxi dendaren jabea.
9 Kirolak Eskuz Binakako Txapelketa Uranzu frontoian.
10 Erreportajea Kalean edatearen ondorioak
11 Haurren Leihoa Eguzkitza
12 Gazteen Lanak El Pilar
13 Gaztea Toka eta noka Irunen
14 Gazte infor
15 Agenda
16 Kirolak Irun Karting Indoor

Argazki lehiaketa

Hodei Lasa
Mosku plazako Eskina taberna.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Bertsolari Uztapide kalea

IUA: 43493

Bertsolari Uztapide Kalea 90eko hamarkadan.

1983ko uztailaren 24ko Osoko Bilkuran jarri zioten Bertsolari Uztapide Kalea izena. Ermita kaletik hasita, Dunboako kanalaren eskuin ertzean dauden lorategien ondotik, Pelegrin de Uranzu karrikaren amaieran dagoen biribilgunera arte doan kalea da.

Manuel Olaizola "Uztapide" Zestoan jaio zen 1909an. Bertsolaritza munduan eman zituen lehen urratsak, 1936ko gerra zibila baino lehenagokoak izan ziren, arte horrek distira handia eduki zuen garaikoak,. 1936an egin zen txapelketa gogoangarri hartan amaitzen dira urrats horiek, Txirrita eta Saiburu bezalako bertsolariek parte hartu zutelarik. Txapelketa hartan, Uzptapide gaztearen emanaldia, Txirrita handiarenaren parekotzat jo zuten.

Gerraren ondoren, 60. urtera arte, Uztapidek toki on bat lortuko du eta Basarri eta Lasarterekin batera egindako lanari esker lortuko du bertsolaritzaren argia piztuta mantentzea, frankismoak euskara erabiltzearen aurka zapalkuntza gogorra ezartzen zuen garaian. Gure herrietako azoketan eta jaietan parte hartuz, arte hura ahunzturan eror ez zedin lortu zuen, 60. hamarkadatik aurrera berriz ere indarra hartzen hasiko delarik.

Bere bizitzako azken urteetan Oiartzunen biziko da, eta bertan hilko da 1983ko ekainaren 8an. Iruni dagokionez, esan beharra dago 1945ean, "Kurpil Kirolak" elkarteak antolatu zituen jaietan Basarri eta Zepairekin batera kantatu zuela.

1962 urtetik 1971ra arte, biak barne, San Martzial jaietako hitzorduan izan zen, hutsik egin gabe. Bere presentzia ia derrigorrezkoa zen, jende gehien erakartzen zuena baitzen. Edozein gai emanda ere, gai zen bertsotan egiteko.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Akabo inauteriak

Berrikuntzak izan ditu aurten sardinaren ehorzketak, Ondare Kultur Elkartearen eskutik

Sardinaren ehorzketak eman die amaiera Irungo inauteriei, otsailaren 9an. Arraina eta Zanpantzar erre dituzte San Juan plazan, inauterietako egitarauko azken jardueran. Aspaldiko ohitura da sardinaren ehorzketa, baina berritasunak izan ditu aurten. Ondare Kultur Elkarteak antolatu du lehen aldiz, eta garai bateko elementuak berreskuratu ditu, indar berria emateko asmoz.

Euripean egin du sardinaren ehorzketaren kofradiak bere hileta-martxa. Hala ere, zintzo irten da Zabaltza plazatik, 19:30etan. Kolon Pasealekua, Foru Kalea eta Kale Nagusia zeharkatu ondoren, San Juan plazan amaitu du ibilbidea. Lasto artean kokatu dituzte Zanpantzar eta sardina, eta su eman diete, inauterien amaiera irudikatzeko. Zanpantzarrek mosketari mozorro berezia aukeratu du aurten. Txorizoak jaten ibili da, ustelkeria kasuei erreferentzia eginez. Sardinak suziriaren mozorroa aukeratu du, agintariek iragarri izan duten susperraldi ekonomikoaren metafora gisa. Sardinaren ehorzketaren errekuperazioa irudika lezake, baita ere. Hori da, behintzat, aurtengo antolatzaileen helburua.

Sardinaren ehorzketaren kofradia eraberritu du Ondare Kultur Elkarteak. Urte batzuk eman dituzte proiektua aurrera eraman nahian. Azkenean, aurten jarri dute martxan, udalaren baiezkoa jaso ondoren. “Garai batean Izoki elkarteak antolatzen zuen sardinaren ehorzketa. Baina duela lauzpabost urte ardura hori utzi zuen, eta ekitaldia gainbeheran zihoan”, azaldu du Iñigo Mangas Ondare Kultur Elkarteko presidenteak. Ohitura indarberritzeko asmoz, Izoki Elkarteko kideekin harremanetan jarri ziren. Horrela lortu zuten garai batean sardinaren ehorzketan erabiltzen ziren estandarteak eskuratzea.

> “Sardinaren ehorzketa gainbeheran zihoan”
> **Iñigo Mangas, Ondare Kultur Elkarteko presidentea**

Pertsonaiak ere berreskuratu nahi izan zituzten Ondareko kideek. Horretarako, udal artxiboko argazkietan arakatzen ibili ziren. Akerrak, eta beltzez jantzitako alargunak ateratzen zirela ikusi zuten. Pertsonaia horiek berreskuratzen saiatu direla argitu du Mangasek. Gainera, beste pertsonaia batzuk gehitu dituztela onartu du: “Ekitaldiari ikusgarritasun handiagoa ematen saiatu gara. Ehorzketa bat dela kontuan hartuta, apaizak eta meza-laguntzaileak sartu ditugu”. Aurten larri samar ibili dira denboraz, udalaren konfirmazioa berandu heldu zaielako. Datorren urterako, ordea, proiektuaren egonkortzea espero du Iñigo Mangasek: “Aurtengoa lehen proba izan da. Jendeak kalean eta komunikabideetan ikusi gaitu, eta beharbada, datorren urtean, parte hartu nahi izango du”.

> “Ekitaldiari ikusgarritasun handiagoa ematen saiatu gara”
> **Iñigo Mangas, Ondare Kultur Elkarteko presidentea**

Ondareari eusteko asmoz

2011 urtean sortu zen Ondare Kultur Elkartea. Orokorrean, hiriko kultura eta ohiturak bizirik mantentzeko, eta horiek gazteen artean zabaltzeko helburuarekin. Lehen ekimena, Irungo alardean inspiratutako buruhandiak eta erraldoiak egitea izan zen. Sanmartzialetan eta auzoetako jaietan parte hartu izan dute horiekin. Bestelako lan ildoak ere jorratu dituzte. “Batetik, harrera etxeak bisitatzen ditugu errege bezperan, erregeen kabalgatan irteten gara, eta Disney pertsonaiekin elikagai bilketetan parte hartzen dugu”, argitu du Mangasek. Elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko Kalean Bai programan parte hartzen du Ondarek. Euskara ere hiriaren ondare den aldetik, helburu gisa du elkarteak. Jarduera gehienak euskaraz egiten saiatzen direla baieztatu du Iñigo Mangasek. “Euskara eskolako ikasgai bat besterik ez da gazte askorentzat, eta hori aldatu nahi dugu, eskolaz kanpo euskaraz aritzeko aukera eskainita”, erantsi du.

Orain arte ez dute lokalik izan, eta horrek asko zaildu du elkartearen bilakaera. Hasieran, buruhandiak eta erraldoiak Iñigo Mangasen gurasoen etxean gordetzen zituzten. Bilerak eta eskulanak, presidentearen beraren etxean egiten zituzten. Beranduago, garaje bat alokatu behar izan zuten. “Jende askorentzat, fikziozko elkartea gara. Prentsan ikusten gaituzte, kalean ere bai, baina gero ezin gaituzte kokatu. Horregatik ezin izan dugu gehiago hazi”, aipatu du Iñigo Mangasek. Orain, berriz, Landetxako Haur Hezkuntzako eskola zaharrean egoitza bat edukitzeko aukera emango die Irungo Udalak, beste zenbait elkarterekin batera.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

INAUTERIAK 2016

1.Goian: Zanpantzarren etorreraren desfilea.
2.Ezkerrean: Euskal herri inauteria (Lizartza). Adaxka eta Kemen dantza taldeen eskutik.
3.Eskuinean: Puska biltzea (Ibarla Meaka).

Inauterietako desfilea.

LEIRE LOPETEGI, Amatxi dendaren jabea

"Produktuak dastatzeko kafetegia jarri dut"

Otsailaren 8an zabaldu ditu ateak Luis Marianoko Amatxi dendak. Hamabost egun eman ditu itxita, baina eraldatze esanguratsua jasan du denbora horretan. Teak, kafeak, azukreak, eta bestelako gozoak saltzeaz gainera, produktuak bertan dastatzeko aukera ematen du orain. Kafetegi gisa ere funtzionatzen du Amatxik. Leire Lopetegi Albenizen eskutik etorri da aldaketa.

Nola sartu zinen abentura honetan?
Hamahiru urte daramatzat ostalaritza munduan. Ostalaritzan, baina beti kafeteratik hurbil. Duela hiruzpalau urte inguru, erreportaje bat irakurri nuen egunkari batean, teteria baten inguruan. Ideia polita iruditu zitzaidan, eta buruan neukan orduz geroztik.

"Hamabost egunez soilik egon da denda itxita"

Nola sortu zitzaizun Amatxi denda hartzeko aukera?
Urrian lana utzi nuen, estresatuta nenbilelako, eta geldialdi bat egin nahi nuelako nire bizitzan. Abenduan jakin nuen lehengo jabeak denda utzi behar zuela, informatzera etorri nintzen, eta interesgarria iruditu zitzaidan.

Lan handia izan duzu dena muntatzen eta antolatzen?
Hamabost egunez soilik egon da denda itxita, eta ziztu bizian egin behar izan dugu dena. Aitor, nire mutila eta ni, eta Manolo eta Lolo, haren gurasoak egon gara, batez ere. Esker bereziak eman nahi nizkieke, baita Maitianako Lorenari eta Rosari, lehengo jabeari ere.

Lehengo jabearen laguntza jaso duzu?
Bai, laguntza izugarria izan da. Lehen egunean galdezka sartu nintzenetik, dena muntatzen lagunduko zidala esan zidan. Nire proiektua izango zela, eta nahi nuen bezala jarriko genuela. Hornitzaileekin berak jarri nau harremanetan, prezioak ipintzen lagundu dit etab. Bide batez, esan nahi nuke lehengo dendako prezio berdinak mantendu ditudala.

Zertan aldatu da Amatxi, jendeak ezagutzen zuenarekin alderatuta?
Zatitu egin dut. Lehengo dendaren esentzia berdina mantentzen du, baina lokalaren beste erdian, produktuak dastatzeko kafetegi modukoa jarri dut. Ideia da jendeak tea, pastak, txokolatea edo dena delakoa erosi aurretik, dastatzeko aukera edukitzea.

Zer azpimarratuko zenuke eskaintzen dituzun produktuen artean?
Batez ere Maitiana txokolatea. Irunen du jatorria, ibilbide luzea du, eta gaur egun, nik bakarrik eskaintzen dut Irunen. Artisau pastak Legamiakoak dira, Hondarribikoak. Gero, tearen munduko bitxikeria guztiak.

"Denda bateko erritmoa askoz lasaiagoa da ostalaritzakoa baino"

Mundu hori dagoeneko ezagutzen duen jendea joaten da dendara? Edo ikasteko interesa duena?
Denetarik ikusi dut. Jende askok denda ezagutzen du, eta asmo zehatzarekin etortzen da. Baina beste batzuk sartzen dira mahaiak ikusten dituztelako, eta kafea hartzeko asmoz. Gero, denda ikusita, aholkua eskatzen dute, zer edo zer erosteko. Jende berria ere etortzen ari da.

Behar duten informazioa ematen diezu zuk?
Bai, tea prestatzeko prozesuaren berri ematen diet adibidez, zergatik batek bost minutu behar dituen, eta beste batek bi. Batzuk te puruak dira, besteak frutadunak, loredunak etab. Hasiberria naiz, baina duela hamar egun Gasteizen egon nintzen, te sommelier baten eskutik ikasten. Oso gustura etorri nintzen handik.

Zer moduz joan da lehen astea?
Lehenengo egunetan oso urduri ibili nintzen. Orain, pixkanaka, konfiantza hartzen ari naiz. Ostalaritzako erritmoarekin ohituta nengoen, eta honek ez du zer ikusirik. Ostalaritzako lana oso azkarra da, bizibizia. Denda bateko erritmoa askoz lasaiagoa da. Ohitzea kostatzen ari zait.

Aurreikuspenak bete dituzue?
Otsailean gaudela eta eguraldi txarra egin duela kontuan hartuta, pozik gaude, bai. Hasieran kopuru batzuk bota genituen, eta betetzen ari gara. Orain betetzen ari baldin badira, pentsatzen dugu etorkizunean ondo funtziona dezakeela. Oso gustura gaude momentuz.

JABIER MUGURUZA, musikaria:

"Tematuta nengoen sonoritate jakin bat lortzearekin"

Hamalaugarren diskoa aurkezten dabil Jabier Muguruza musikari irundarra. "Obra defendatzen", zehaztu du. Irunen aritzeko aukera ere izan du, otsailaren 13an. Etxetik oso-oso gertu, gainera, 150 metro ingurura. Oiasso Museoko Kaia aretoan eskaini du kontzertua, Mikel Azpiroz piano jotzailearekin batera. Bere ibilbide osoko kantuak uztartu ditu Jabier Muguruzak *Tonetti anaiak* diskoko berrienekin.

Berezia al da zuretzat Irunen jotzea?

Bai, ez dira kontzertu arruntak izaten. Irunen, urduri hasten naiz beti. Gertuko jendearen presentziagatik, eta absentziagatik ere bai. Badago jendea nire kontzertuetara beti etorri izan dena, baina gaur egun ez dagoena. Guzti horrek giro emotibo berezia sortzen du. Alde batetik presioa badago, baina bestetik, ederra ere bada. 55 urte daramatzat Irunen bizitzen, imajinatu zenbat jende ezagutzen dudan. Museoko aretoa txikia dela kontuan hartuta, ikusle gehien-gehienak ezagutzen nituela esatea ez da esajeratzea.

Oiasso Erromatar Museoa ere ez da kontzertu areto arrunta.

Erromatar museoan jotzea polita izan da niretzat. Batetik, etxetik 150 metrora dudalako. Bestetik, iruditzen zaidalako zeregin inportantea betetzen duela. Kontzertu gutxi egin izan dira museoan orain arte, baina gero eta jarduera gehiago egiteko asmoa dutela entzun dut. Gure proposamen artistikorako, behintzat, oso leku egokia da. Areto handietan ere gustura aritzen naiz, baina txikietan beste harreman bat sortzen da ikuslearekin. Niri abestien artean hitz egitea gustatzen zait, jendeari azalpenak ematen dizkiot, umorea erabiltzen saiatzen naiz... Guzti horretarako, oso aproposa da Oiasso Erromatar Museoa.

Urduri jartzen zarela esan duzu. Nola da posible, halako ibilbide luze baten ondoren?

60 urte baino gehiago zituela, Mikel Laboak esan zidan urduritasuna ez dela sekula sendatzen. Zaila da kontrolatzea. Gero egia da, esperientzia handia duzunean, trikimailuak ere ikasten dituzula. Beste abeslariek bezala, nik ere letrak ahazten ditut, eta akatsak egiten ditut jotzerakoan. Baina disimuluan aditua naiz dagoeneko.

Oso gustura gelditu omen zara *Tonetti anaiak* diskoarekin. Musikariek ez al duzue disko bakoitzari buruz berdina esaten?

Euskal musika kazetari ezagun batek, mahai inguru batean, galdetu zidan ea nondik ateratzen nuen ilusioa disko berriak egiteko. Galderak mindu egin ninduen. Eta esan nion, disko bakoitza nire ibilbideko onena izan dadin saiatzen naizela. Hori dela nire ilusioa. Konbentzituta nago, *Tonetti anaiak* disko onena ez baldin bada, onenetakoa dela.

Zein da arrazoia?

Ni tematuta nengoen sonoritate jakin bat lortzearekin. Ez da soinua, giro musikal bat, edo atmosfera bat baizik. Pentsatu genuen, auditorio batean, jazz bandarekin zuzenean jotzen baldin bagenuen, lortuko genuela sonoritate hori. Musikari apartak bildu genituen Tarragonako El Vendrell herriko auditorioan, eta bostok batera grabatu genituen abestiak. Nahi nuen sonoritatea lortzea ia obsesioa izan da oraingoan, eta lortu dudala uste dut. Horregatik nago horren pozik emaitzarekin.

> "Disko bakoitza nire ibilbideko onena izan dadin saiatzen naiz"

Aurreko diskoan ez bezala, abestietako hitzetako batzuk idatzi dituzu. Zergatik?

Aurreko diskoan, testu bakar bat ere ez nuen idatzi. Oraingoan, berriz, hiru dira nireak. Zergatik? Ez nuke jakingo esaten, boladak izaten dira. Aurrerantzean hala izango ote den? Ba hori ere ez dakit. Zorionez, idazle eta letra egile onak ditut inguruan, eta tentazio handia da haiei testuak eskatzea.

***Tonetti anaiak* abestia eraman duzu diskoaren izenburura, eta azalera. Beste edozein ere izan zitekeen?**

Ez. Sonoritatearekin bezala, gai horrekin ere tematuta nengoen. Ipuin bat idatzi nuen haren inguruan, eta *Hilen logika ezkutua* liburuan argitaratu nuen. Kontua da oso gauza bitxia eta ederra gertatu zitzaidala. Iruñean nengoen, Oskar Alegriaren *Emak bakia baita* filma ikusten. Pelikulan, besteak beste, defendatzen da pailazo bat ez dela sekula hiltzen. Ideia horrek, zama handi bat kendu zidan gainetik. Izan ere, txikia nintzela, Tonetti anaiak ezagutu nituen zirkoan, aitarekin. Haien kamerinoan egon ginen, eta pozez zoratzen ibili nintzen. Baina urte batzuk beranduago, bietako batek bere buruaz beste egin zuen. Niretzat kolpe ikaragarria izan zen. Abesti honetan buelta ematen diot, ez zaidalako gustatzen kantu ilunak egitea. Leihoak irekitzea eta arnasa ematea nahiago dut, eta kasu honetan ariketa hori egiteko aukera nuen.

> "Titulu iradokitzailea iruditzen zitzaidan"

Narrazio libururako ere, *Tonetti anaiak* izena proposatu nien argitaletxekoei. Baina ez zuten ontzat eman. Orain, diskoari jarri ahal izan diot. Elkarrizketetan galdetu izan didate beste kantuek ere Tonetti anaiekin lotura duten, edo zein informazio ematen duen abesti horrek. Ez dago halako ezer ere ez, baina niri oso titulu iradokitzailea iruditzen zitzaidan. Argazkia ere banuen, eta azalerako oso ondo zetorkidan. Diseinurako, gainera, lan ederra egin du Pedro Balmasedak.

Zer eman diete lagundu dizuten musikariek zuk konposatutako kantuei?

Garai batean, harrigarria iruditzen zitzaidan abesti bakoitzaren garapen prozesua. Etxean konposatutako abestiak janzten joatea, eta nola hazten ziren ikustea. Gaur egun ohituta nago, zoritxarrez, urteek ez dutelako barkatzen. Hala ere, badirudi ilusioa falta duen norbaiten diskurtsoa dudala, eta ez da horrela. Egia da disko honetan musikariek egin duten lana zoragarria dela, eta kolaboratzaileek kantuei ematen dieten ukitua ere bai.

Mende erdia beteko du Santiagotarrak Kirol Elkarteak

Urte osoko egitaraua prestatzen ari dira

Duela 50 urte antolatu zuten, lehen aldiz, Bidasoa Ibaiaren Jaitsiera. Santiagotarrak Kirol Elkartearen lehen ekimena izan zen. Hasiera ofiziala. Hortaz, mende erdia beteko du aurten klubak. Ospatzeko moduko urtemuga da, eta ez dute oharkabean pasatzen utziko. "Proiektua garatzeko lan talde bat eratu dugu. Denbora daramagu lanean, 2016a berezia izan dadin", baieztatu du Antxon Arellano presidenteordeak.

Santiagotarrak Kirol Elkarteko kide batzuk, 1969. urtean

"Esan dezakegu Santiagotarrak erreferentea dela, estatuan, eta mundu mailan ere bai"
Olatz Zabala, presidentea

"Bidasoa ibaiko ura hartuko dute, Sellan isurtzeko"
Antxon Arellano, presidenteordea

Urte osorako egitaraua prestatzen ari dira. Hilabete bakoitzeko, jarduera bat, behintzat, programatu dute. Kirol lehiaketak daude, baina kultur eta gizarte arloko ekimenak ere bai: Irun Hiria Musika Bandaren eta Ametsa Abesbatzaren kontzertua, Irungo Argazki Elkartearekin elkarlanean antolatutako argazki rallya, Euskal Jiran parte hartzea, *Santiagotarrak 50 urte* liburua argitaratzea, argazki erakusketa, hitzaldiak, mendi martxa edo Santo Tomas egunaren eta Olentzeroren etorreraren ospakizunak. Batzuek data zehatzak dituzte, beste batzuk lotzeko lanean ari dira oraindik.

Nolanahi ere, jarduera nagusia, Bidasoa Ibaiaren 50. Nazioarteko Jaitsiera izango da. Piraguismo asteburua hartuko du Bidasoa ibaiak, uztailaren 23an eta 24an. Larunbatean, Espainiako IV. Ibaien eta Zeharkaldien Txapelketa jokatuko dute. Hitzordu horrek estatuko piraguista onenetako batzuk erakarriko ditu, eta jaitsierako parte hartzaileen mailak ere gora egingo du, ondorioz. Ezaugarri emotibo gehiago izango ditu aurtengo jaitsierak. Horietako bat azaldu du Antxon Arellanok: "Presa jaitsi ahal izango den azken aldia izango da. Eraitsi behar baitute". Bestea, Asturiasko lagunen bisita izango da. Bidasoa eta Sella ibaien jaitsieren arteko senidetzea egingo dute. "Haiek Bidasoa ibaiko ura hartuko dute, Sellan isurtzeko. Guk alderantziz egingo dugu, abuztuan hara joaten garenean", argitu du Arellanok.

Ospakizunei amaiera emate aldera, bazkaria eta itxiera ekitaldia egingo dituzte. Azaroan izango dira, Ficoban. Santiagotarrak Kirol Elkartetik pasa den jendea omenduko dutela aurreratu du Olatz Zabala presidenteak: "Denek egin dute haien ekarpena, haien ilusio guztiarekin, engranaje konplikatu honek funtziona dezan. Denon lanari esker, esan dezakegu Santiagotarrak erreferentea dela, estatuan, eta mundu mailan ere bai". Beste bi jarduera geldituko dira abenduarako. Santo Tomas eguneko ohiko txistorrada, eta Gabon gau egunean Olentzeroren etorrera ospatzea. Garrantzi handia du azken honek, klubaren ernamuina izan baitzen.

Santiagoko bi koadrilaren ekimena

1965ko Gabonetan, Olentzeroren koplak abesteko elkartu ziren Irungo Santiago auzoko bi koadrila. Dozena bat gazte, guztira. Lehen saria irabazi zuten lehiaketan, eta bildutako diruarekin, elkarte bat sortzea erabaki zuten. Ganbara bat utzi zieten lagun baten gurasoek, eta hura atonduz hasi ziren. "Ez genuen elkarte gastronomiko hutsa izan nahi. Beste aktibitate bat sortu nahi genuen", gogoratu du José Ramón Barriok.

Orduan, egurrezko bateletan ibiltzen hasi ziren. Stadium Galeko harmailen azpian gordetzen zituzten, hasieran. "Gaur egun elkarteak duen ontziralekua harrigarria da guretzat. Udako ikastaroetan haur guzti horiek ikusten ditudanean, hunkitu egiten naiz", onartu du José María Lecuonak. Lehen urrats xume haien ondoren, klubari behin betiko bultzada emateko, Bidasoa Ibaiaren Jaitsiera antolatzea erabaki zuten, 1966an. Duela berrogeita hamar urte.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Neguko hitzordua heldu da Uranzura

Eskuz Binakako Txapelketako neurketa hartuko du Irungo pilotalekuak

Galdu ezineko bi ikuskizun izaten dituzte Irungo pilotazaleek urtero. Uztailaren 1ekoa finkoa da. Sanmartzialei amaiera emateko, maila handiko pilotarien arteko lehia ikusteko aukera izaten dute Uranzu pilotalekuan. Bestea, neguaren amaiera aldera izaten da. Eskuz Binakako Txapelketako norgehiagoka hartzen du urtero Irungo frontoi historikoak. Kurpil Kirolak elkarteak antolatzen du jaialdia, Asegarce enpresaren laguntzarekin eta Irungo Udalaren babes ekonomikoarekin. Aurten otsailaren 19an izango da, 20:30etatik aurrera.

Ezkurdia-Barriola//Altuna III-Merino II izango da partida nagusia. Eskuz Binakako Txapelketako final laurdenetako ligaxkari dagokiona. Lehenago, Promozio Mailako lehia hartuko du Uranzuk: Mendizabal III-Erostarbe//Arteaga II-Imaz. “Txapelketa nola joan den ikusita, zalantza handiena da pilotariak sasoi aldetik nola iritsiko diren. Min hartuta eta gaixo ibili dira”, adierazi du Juanjo Aldako Kurpil elkarteko presidenteak.

Urteroko jaialdia antolatzen hasten direnean, ikuskizuna nolakoa izango den aurreikustea zaila izaten dela azpimarratu du Aldakok: “ Txapelketaren hasieran, partiden antolaketa banatzen dute enpresen artean”. Emozioa izango du, hala ere, aurtengo partida nagusiak. Ezkurdiak eta Barriolak Victor (Artolaren ordezkoa) eta Albisu menderatu dituzte azken jardunaldian, 22-14. Ondorioz, garaipen bakar bat dago bikote horien artean. Ezkurdia eta Barriola daude atzetik, bosgarren tokian. Eta laugarren postua da finalerdietarako azken txartela ematen duena.

Urtetan pilota jaialdia 22:00etan hasi izan bada ere, 20:30etara aurreratu dute azken aldian. Juanjo Aldakok eman du azalpena: “Larunbata izango balitz, tira. Baina ostiral batean gaueko 22:00etan hastea beranduegi da. Larunbat goizetan batzuek lan egiten dute. Gainera, kanpotik datorren jendearentzat ordu txarra da bueltatzeko”. Kanpotik datozenengan pentsatzen dute, beraz. Izan ere, asko dira inguruko herrietatik hurbiltzen diren pilotazaleak. Hondarribitik edo Hendaiatik, baina Oarsoaldetik eta Bortzirietatik ere bai. “Irunen ere, beti izan dira pilotazaleak”, aldarrikatu du, dena den, Aldakok. Guztien artean, Uranzu pilotalekuari itxura ederra ematen diote: “Frontoia betetzeko arazorik ez dugu izaten. Hala behar du, gainera, bestela udalak diru-laguntza emateari utziko diolako”.

700 lagun inguru bilduko dira Uranzu pilotalekuan. Baina horietako askok, egurrezko aulkietan eserita ikusi beharko dute jaialdia. Zaharkitutako frontoia da Irungoa, eta gabezia handiak ditu. Ikusleentzako leku eskasa da horietako bat. Bestea, ezagunena, hotza da. “Egia da ez dagoela berogailu sistemarik. Hala ere, futbol zelai gehienetan ere ez da egoten, eta euria egiten duenean, jendea busti egiten da”, gogorarazi du Aldakok. Pilotarientzat ere, ez da jokaleku aproposena. Beste erabilerak ere baditu Uranzuk, eta marra ugari ditu, ondorioz, zoruan. Gainera, ohi baino handiagoa da, eta nekez heltzen dira pilotariak errebotera. Hala ere, “kontent” etortzen direla baieztatu du Juanjo Aldako antolatzaileak.

Eraberritzearen auzia

Pozik dago Juanjo Aldako, udalak azkenean pilotalekua birmoldatzeari ekingo diola uste duelako. Hamarkadetako eskaera izan dela nabarmendu du Kurpil elkarteko presidenteak. Krisiaren aurreko garaian, Stadium Galen eremuan frontoi berria eraikitzeko proiektua bolo-bolo ibili zela ere gogoratu du: “Ezerezean gelditu zen hura. Orain, badirudi azkenean eraberrituko dutela. Sanmartzialen ondoren hasiko omen dira lanean, baina ni ez naiz fio”. José Antonio Santano alkateak, aldiz, proiektua aurrera doala baieztatu du. Zenbait xehetasun eman ditu, gainera: “Guk planteatzen duguna frontoiaren errehabilitazioa da. Oinarrizko elementua frontisa da, eta mantenduko dugu. Hortik abiatuta, hiru hobekuntza mota egin nahi genituzke: segurtasunari, irisgarritasunari eta erosotasunari dagozkionak”. Ikusleentzako sarrera Sarjia parkean egongo dela aurreikusi dute.

Kalean edatearen ondorioak

Sarjia parkean litroak egiten dituzten gazteek sortutako zaborra arriskutsua dela salatu du Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkarteak

Parranda eta edari alkoholdunak estu lotuta egoten dira. Tabernetan kontsumitzen ditu jende gehienak, baina badira kalean edaten dutenak ere. Ohitura horrek sortzen dituen arazoengatik, eztabaida iturri izan dira beti botiloi edo litro deiturikoak. Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkarteko kideek haien haserrea adierazi dute berriki, asteburuetan Sarjia parkean edaten dutenek uzten duten zaborraren, eta hark eragiten dituen arriskuen inguruan.

"Kalean edatea galarazten duen ordenantza bat dago, eta ez da betetzen"
Koldo Susperregi, Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkarteko presidentea

"Litroak ordu muga batzuen barruan egiten baldin badituzte, ez dugu esku hartzen"
Lourdes Larraza, Udaltzaingoaren ordezkari politikoa

Edari alkoholdunen botilak, freskagarrienak, betetako edalontziak, janaria eta bestelako hondakinak agertzen omen dira, larunbat eta igande goizetan, Sarjia parkean. "Astebururo izaten da, ez noizean behin", azpimarratu du Koldo Susperregi Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkarteko presidenteak. Haur parkea da Sarjia, eta neska-mutilak joaten dira asteburuetan, gurasoekin, jolastera. "Arrisku handia dago. Haurrak erortzen baldin badira, moztu egin daitezke, askotan hautsitako botilak egoten direlako lurrean. Bestalde, edari alkoholdunak erdizka uzten dituzte". Arriskuak ekiditeko neurriak eskatu ditu auzo elkarteak. Alde batetik, litroak egiten dituzten gazteei mezu argia bidali diete: "Egin nahi baldin badute, gizalege pixka bat eskatzen diegu, behintzat. Bota dezatela zaborra zakarrontzira".

Kalean edateko ohitura bera ere zalantzan jarri dute, aitzitik. "Hasteko, ordu jakin batzuetan kalean edatea galarazten duen ordenantza bat dago, eta ez da betetzen", gogorarazi du Susperregik. "Denok litroak egingo bagenitu, pentsa nola egongo litzatekeen hiria", gaineratu du. Udaltzainen esku hartzea da eskatu duten neurrietako bat. Lourdes Larraza Udaltzaingoaren ordezkari politikoak azaldu du bizilagunen kexen arabera jarduten dutela: "Litroak ordu muga batzuen barruan egiten baldin badituzte, ez dugu esku hartzen. Hortik aurrera, zarata edo bestelako arazoak sortzen baldin badira joaten dira udaltzainak". Hiriko beste lekuetan gertatu izan dela aipatu du Larrazak. Sarjiaren kasuan, ordea, orain arte ez dutela abisurik jaso. Zaborraren inguruko kexak, aldiz, ulertzen dituela onartu du Udaltzaingoaren ordezkariak. Txingudiko Zerbitzuak-eko lankideek abisua jaso dutela, eta hemendik aurrera kontuan hartuko dutela baieztatu du.

Gazteen artean hedatutako ohitura

Parkeetan eta bestelako gune publikoetan edari alkoholdunak kontsumitzea, ohitura polemiko bezain arrunta da. XX.mendearen amaiera aldera sortu zen, eta hurrengo belaunaldietako gazteek errepikatu izan dute. Lanik egiten ez duten gaztetxoak izaten dira, gehienetan. Batzuetan, adin txikikoak. "Ikusten baldin badugu jendeak lagunartean edaterakoan ondo pasatzen duela, baina ez baldin badugu tabernetara joateko dirurik, zer egin dezakegu?", galdetu dute Urdanibia plazan bildutako gazteen talde batean. Lokalik edo aisialdirako beste espaziorik ez duten gazte askorentzat bezala, kalean edatea da haien aukera.

Dirua da gazteak litroak egitera bultzatzen dituen arrazoi nagusietako bat. Diru falta. "Zure diru-iturri bakarra gurasoen paga baldin bada, esango didazu nola joan zaitezkeen tabernaz-taberna", bota du taldeko gazte batek. Gaztetxoenen kasuan, pisuzko beste arrazoi bat ere badago: "Tabernetan ez da gure adineko jendea egoten".

Poliziaren presentziaren eta jarreraren inguruan galdetuta, erantzun zorrotzak eman dituzte: "Errepresioa areagotuta, lortzen duzun bakarra da desobedientzia, edo arazoa leku batetik bestera mugitzea. Zer da okerragoa, hiri erditik hurbil, arrisku handirik gabeko leku batean egitea, edo kanpoaldeko poligono batera joatea?". Botiloiaren balizko debeku baten aurkako iritzia azaldu dute. Onartu dute, hala ere, kalean edateak izan ditzakeela ondorio negatiboak. Gehienetan zaborra uzten dutela aitortu dute. "Urdanibia-San Juan eremua parranda gunea dela kontuan hartuta, garbiketarako protokolo bat eduki behar lukete", adierazi du, hala ere, gazteetako batek. Luze joan daiteke eztabaida. Denen intereseko konponbideak topatzea, ordea, nekeza izango da.

Eguzkitza - Gela egonkorra

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

El Pilar Ikastetxea. 4. maila DBH. Juncal, Nerea, Iñaki, Carlos



EUSKARAZ, iRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959ko Otsaila). (El Bidasoa-IV-11)

Bitxintxo jaiak

Atzo zirela
Frantziyan
bi xintxo
ta beste denak alperrak

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Toka eta noka Irunen

Hika ikastaroa antolatu dute Irunabarrek eta AEKk

Euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko ekimen ugari egin izan dira Irunen. Izan ere, erronka handia du hiriak hizkuntzaren normalizazioari dagokionez. Proposamen bitxiak ere badira, horien artean. Esate baterako, Irunabar Irungo bertsoaren bilguneak eta AEK euskaltegiak antolatu dutena. *Hika tailerra. Toka eta noka ohitzeko ikastaroa* eskainiko dute, martxoaren 5etik maiatzaren 28ra, larunbat goizetan. Parte hartzeko izena eman daiteke dagoeneko.

Irunabarreko kide den Aitor Errazkin irakasleak eta Joxan Elosegi itzultzaileak zuzenduko dute ikastaroa. Horixe da, hain zuzen ere, aurtengo berrikuntza nagusia. "Lehenago ere egin izan dugu ikastaroa. Baina orain arte, irakasle bakar batek zuzendu izan du. Aurten, aldiz, bi ariko gara, eta ondorioz, askoz ere biziagoa izango da ikastaroa. Gure artean hika ariko gara beti, eta erreferentzia hori edukitzea lagungarria izango da parte hartzaileentzat", azaldu du Joxan Elosegik. Martxoaren 5ean hasiko da ikastaroa, eta hamaika saio izango dira, guztira. Larunbat goizetan, 9:00etatik 12:00etara, Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak Irunabarri utzitako lokalean (Junkal kalea, 22).

Hamaika saio horien ondoren, parte hartzaileek oinarri sendoa edukiko dutela uste du Elosegik: "Ez dakit eroso ariko diren hika, baina ezagutuko dute, behintzat. Ziur batzuk erabiltzen hasiko direla". Ikastaro praktikoa izango da, batez ere. Aditz formak landuko dituzte, elkarrizketak egingo dituzte, eta etxeko lanak edo zereginak izango dituzte. Aspektu teorikoak ere aztertuko dituzte, dena den. "Bigarren pertsonarekiko tratamendua hizkuntza ezberdinetan nola egiten den, eta zein bilakaera izan duen ikusiko dugu", argitu du Joxan Elosegik. Ingelesaren kasua aipatu du, berezia baita. Hitanoaren tratamendu baliokidea aspaldi galdu zen ingelesez. Elosegik azpimarratu du galera horrek ez duela hondamendirik eragin: "Ez da ezer gertatu. Euskaraz ere, hika ez aritzea ez da arazoa. Guk defendatzen duguna da euskaldunok hika ezagutu beharko genukeela, gutxienez. Gero, erabili edo ez, norberaren aukera da".

Inguruko euskaldunei zuzendua

Euskara batuko formetatik abiatuko dira ikastaroan. Baina Irungo eta Bidasoa aldeko moldeei helduko diete ondoren. Hika aritzeko, tokian-tokiko formak ezagutzea ezinbestekoa dela uste dutelako. Irungo eta inguruko hikaren berezitasunak azaldu ditu Joxan Elosegik: "Tradizio nafarrarekin lotuko genuke, zalantzarik gabe. Desberdintasun batzuekin, noski". Bidasoa aldean euskara gurasoengandik jaso duen jende askok hikari eutsi diola baieztatu du Elosegik. Euskara eskolan ikasi dutenek, berriz, erreferentziarik izan ez dutela adierazi du: "Eskolan hika baztertu egin dute. Batzuetan pentsatu izan dut, bazterketa horrek, gazteen arteko giro euskalduna ahuldu ote duen. Galdera da, irakasleak hika egin behar al dio ikasleari? Zergatik ez?". Pauta sozial sendo batzuei lotuta egon izan da hika. Konplizitatea adierazten du, baina harreman hierarkikoa ere bai. "Goikoak behekoari hika egiten dio, baina behekoak goikoari ezin dio hika egin. Zergatik? Pauta horiek alda daitezke", aldarrikatu du Elosegik.

Irungo eta inguruko herrietako euskaldunei zuzenduta antolatu dute ikastaroa. Euskaldun zaharren edo berrien artean ez dute bereizketarik egin. Beharbada, gazteen artean interes handiagoa sortuko duela uste du, edonola ere, Joxan Elosegik: "Irunen, gazteek ez dute erabiltzen, ez dutelako tradizio hori jaso. Baina polita da, beste konplizitate bat sortzen du. Eta oso gauza erraza da, lau lege besterik ez dira". Izena eman nahi duenak, irunhika@gmail.com helbide elektronikora idaztearekin aski du, otsailaren 24a baino lehen. Bestelako informazioa jasotzeko, 943628834 edo 688825429 telefono zenbakietara deitu, edo Irungo AEK euskaltegira joan daiteke, bulego orduetan, beti ere (Legia kalea, 6).

HIKA TAILERRA
TOKA eta NOKA OHITZEKO ikastaroa Joxan Elosegiren eta Aitor Errazkinen eskutik.

Prezioa: 60 euro.

Noiz? martxoaren 5etik maiatzaren 28ra (larunbatetan)

Ordua? 9:00etatik 12:00ak arte.

Non? Junkal karrika, 22 (Irun).

Izena emateko helbideak: e-posta: irunhika@gmail.com TEL.: 943 628 834 - 00 34 688 825.

Zuzeneko informazioa: Irungo AEK Euskaltegia, Legia karrika, 6 - Irun.

Antolatzaileak: IRUNABAR, Irungo bertsoaren bilgunea // Bidasoko AEK

Informazio gehiago: 13. orrialdean.

BETTI GOTTIK UDALEKUETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DITU
Zer? Betti Gotti Elkartea begirale boluntarioen bila ari da, udalekutara joateko

Noiz? abuztuaren 12tik 23ra.

Non? Zuhatzako Irla.

Jar zaitez kontaktuan otsailak 24 baino lehen:

- Telefonoz: 609 890 830

- Emailez: bgbegiraleak@gmail.com

- Facebook bidez: facebook.com/bettigottieke

MILROMEZUEN LEHIAKETA.
KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA
Zer? Kontaiguzu nolako esperientzia duzun kontsumoarekin: Eskatu ez dituzun mezuak jasotzen dituzu zure telefono mugikorrean?, Bideojoko bat edota kontsola erosi duzu, eta ez dabil...?, Iterneten bidez zerbait erosi duzu, eta ez zaizu iritsi?

Pentsatu eta ekin, euskeraz edo gaztelaniaz, 140 karakter gehienez eta... Parte hartu!!!

Leloa: "Kontaiguzu nolako esperientzia duzun kontsumoarekin..."

Epea: martxoak 5.

Norentzat: 10-16 urte bitarteko gazteak.

- 1.go kategoria: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleak eta DBHko 1.go mailakoak . Saria: 2 tablet (Samsung Galaxy), hizkuntza bakoitzeko bana.

- 2. kategoria: DBHko 2., 3. eta 4. mailetako ikasleak. Saria: 2 ordenagailu eramangarri, Nvidia GeForce txartel grafikaorekin, hizkuntza bakoitzeko bana.

Deialdia egiten duena: Irungo Udaleko Kontsumo Bulegoa (KIUB).

Zure mezuak bidali:

- Posta elektronikoaren bidez

- Whatsapp bidez 607 771 173

- Twitter bidez @irunconsumo

- Aurrez-aurre, HAZen(C/ San Marcial, 2)

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

199 kontratu gazteentzat Gazteentzako Berme Sisteman

CSIC-ek (Zientzia Ikerketetarako Goi Kontseiluak) 199 lan-kontratu egingo ditu praktika-modalitatean, autonomia erkidego hauetan barrena dauden CSIC-en institutu, zentro edo unitate organikoetakoren batean aritzeko dira: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kanariar Uharteak, Kantabria, Gaztela-Leon, Katalunia, Galizia, Murtzia, Nafarroa eta Valentzia.

Informazio gehiago: sede.csic.gob.es/garantia-juvenil-csic-2-pf

Bitamine Faktoriaren 2016ko sorkuntzarako mugaz gaindiko laguntzak

Laguntzaren xedea: Obra-ekoizpena ikusizko arteetan, musikan, arte eszenikoetan, literaturan, diseinuan, komikian edo sorkuntzako beste edozein diziplinatan. Kultur proiektuei ekitea: nazio eta nazioarteko eremuan kultur ekitaldiak eta/edo guneak kudeatzea. Obra erakusketa.

Eskaerak: 2016ko martxoaren 31ra arte

Deialdi honen bidez, banakako sortzaileen eta kolektiboen proiektuak nahiz ekoizpengune iraunkorren eta kultur eragile independenteen ekimenak babesten ditu Bitamine Faktoriak, horrela lekuko sorkuntza-ehuna sendotzen eta herritarren artean hedapen handiagoa lortzen lagunduz.
Informazio gehiago: http://www.bitamine.net/

Urtarrilaren 29tik otsailaren 29ra

Zer? Lehen Mundu Gerrari buruzko erakusketa interaktiboa ikusi ahal izango da, digitala eta hainbat hizkuntzatan. "14-18" goiburuarekin, 13 paneletan birpasatuko da gataz-karen nazioarteko dimentsioa.

Non? CBA Udal Liburutegian.

Ordua? Astelehenetik ostiralera: 09:00-20:00; Larunbatetan: 09:00-13:00.

Prezioa? Doako sarrera.

Otsailak 9tik 21era

Zer? Irungo Mendizaleak elkartearen argazki erakusketa.

Non? Kolon Ibilbideko Laboral Kutxan.

Ordutegia? Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00 / Igandeak: 12:00-13:30

Prezioa? Doako sarrera.

Otsailak 16

Zer? Opera Zinema “Thais” J. Massenet.

Non? Amaia K.Z. Hitzaldi aretoan.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Otsailak 17

Zer? “Zu eta ni” Kontu kontari 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta. Dorleta Kortazarren eskutik.

Non? CBA Udal Liburutegian

Ordua? 17:30etan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Otsailak 18

Zer? "LINKEDIN: LANEKO SARE ONENETAKO BAT" tailerrean, optimiza itzazu enplegua bilatzeko egiten dituzun ekintzak eta hobetu itzazu aurkezteko erabiltzen dituzun tresnak. Landu itzazu lan merkatuan aurkezten duzun hautagaitza aurkezteko tresnak: nola hedatu LinkedInen bidez.

Non? El Espazio Anaka, 27.

Ordua? 9:00etaik 13:00etara.

Prezioa? doan.

Erreserba egiteko?

- Internet bidez: WEB atalaren lotura jarraituz

- Zuzenean: El Espazio, Anaka kalea, 27

- Telefonoz: 943633160

- Emailez: elespazio@bidasoa-activa.com

Otsailak 20

Zer? Mandragora Negra talde irundarrak etxean eskainiko du kontzertua, bere jarraitzaileei esker onez, Lord Witch taldearen laguntzarekin.

Kontzertua bukatutakoan festarako aukera izango da: CDak sinatuko dira, eta metal dj bat ariko da.

Non? Café Irun, Letxunborro, 91.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? 8 euro aldez aurretik/ 10 euro leihatilan.

Salmentak? Café Irunen.

Telefonoa? 943637377

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 28ra

Zer? Erakusketa: Andoni Lubaki - Mozambique, lurraren taupada. Andoni Lubakiren argazkiak Mundubatentzat

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa. Sargia, 1, atzealdea.

Ordua? Ostegunetik igandera, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Prezioa? Doako Sarrera

Argi berdea

Bigarren urteari ekingo dio laster Irun Karting Indoor-ek, egonkortzeko asmoz

Martxoan beteko du lehen urtea Irun Karting Indoor instalazioak. Etenik gabe lanean aritu dira arduradunak orain arte, zirkuitua eta zerbitzua hobetzeko asmoz. Finkatzea lortu dutenean, hasieran egin ez zuten inaugurazio festa antolatu dute. Otsailaren 12an izan da. Aurten eskainiko dituzten zerbitzu berriak aurkeztu dituzte, Jorge Lorenzo moto eskolako haurren ikuskizuna eskaini dute, eta lunch txiki bat dastatzeko aukera ere eman diete hurbildutako bezero eta lagunei.

Molino Errepidean dago Irun Karting Indoor, Letxunborro Hiribidearen atzealdean. Industria-nabe bat da, eta lantegi eta biltegi handien artean dago. Barruan, ordea, estalitako kart zirkuitu modernoa dago. "Ziur nago Irungo jende askok oraindik ez dakiela hemen gaudenik ere", onartu du Aritz Goikoetxea arduradunak. Lanpetuta ibili dira azken urtean, eta oraindik ez dute kanpaina indartsurik egin. Beste urrats bat emateko prest daude orain, ordea.

Inaugurazioan, aurten eskainiko dituzten zerbitzu berriak aurkeztu dituzte. Batetik, 6-13 urte arteko haurrentzako kartak. Gipuzkoa osoan bakarrak dira. Goikoetxeak azaldu ditu kart horien ezaugarriak: "Segurtasun uhala dute, eta pedala eta bolantea mugitu egin daitezke, haur bakoitzaren altuerara egokitzeko". Haurrentzako kart-ak edukitzeak, ikastaroak emateko aukera ere emango du. Formazio teoriko-praktikoa eskainiko dute. "Oinarrizko kontzeptuak barneratuko dituzte, eta beste karting-etan aritzen direnean ere erabili ahal izango dituzte", aipatu du Aritz Goikoetxeak.

Bestalde, helduentzako kart berriak ekarri dituzte. GT5 modelokoak dira, eta 270 zentimetro kubikoko motorrak dituzte. Kart-etan esperientzia dutenentzat oso erakargarriak direla azaldu dute arduradunek. Horrela, bezeroen abanikoa zabalduko dutela uste dute. "Guk denak hartzen ditugu. Ibiltzen ez dakienari erakutsi egiten diogu, eta dakienari, bere martxan joaten uzten diogu", baieztatu du Goikoetxeak. Bisitarien jatorria ere, askotarikoa izan da orain arte. Gipuzkoa osokoa, Nafarroakoa, Iparraldekoa, eta urrutiagokoa ere bai: "Bizkaiko eta Arabako jendea ere etortzen da, despedidak, edo antzeko festak ospatzera".

Ezaugarri bereizgarriak ditu

Inguruko beste karting-etara joan beharrean, Irungora hurbiltzeko arrazoi ezberdinak egon daitezke. Batetik, estalia da. Beraz, eguraldia dena delakoa izanik ere, kart-etan ibiltzeko aukera ematen du. Pistaren beraren ezaugarriek ere erakarri izan dute jendea. Aritz Goikoetxeak azaldu du ezaugarri nagusia: "Asfaltoa oso latza da, eta gurpilak asko gastatzen dituen arren, merezi du, itsaspena askoz hobea delako. Seguruagoa da, beraz azkarrago joan daiteke, eta bihurguneetan beste sentsazio batzuk eragiten ditu".

Irun Karting Indoor-ek ez du kart-etan ibiltzeko aukera soilik eskaintzen. Taberna ere badu, pista osoa ikusteko aukera ematen duena. Billarra, futbolina, eta bestelako makinak ere badaude, jolastekoak, edo janariak eta edariak saltzen dituztenak. Erretzaileentzat, edo udaran kanpoan egotea nahiago dutenentzat, terraza du karting-ak. "Azken finean, arratsaldetan jende askok ez du jakiten zer egin. Guk aisialdirako beste aukera bat eskaintzen dugu", azpimarratu du Aritz Goikoetxeak: "Probatu ez duten irundarrak animatu nahi nituzke, oso esperientzia ederra topa dezaketelako".

Prezioak:

Bazkide ez direnek: 15€ zortzi minutuko txandak. Hurrengo txanda bakoitzak, 10 €.

Bazkide direnek: 8 € txanda bakoitzeko.

*Urtean 20€ balio du bazkide izateak. Kart bereziak erabiltzeko aukera ematen du.